



BizkaiaGara

SARIAK2026

Eginez izan · Tiempo de acción



AURKEZPENA

BIZKAIAGARA SARIAK ekimenaren helburua da **ekintza komunitarioaren ekarpen sozialari aitorpen indibidual eta kolektiboa ematea.**

Ekintza hau **Boluntarioen Nazioarteko Egunaren** baitan kokatzen, esparru bikaina baita herritarren inplikazioaren eta konpromisoaren garrantzia aitortzeko eta zabaltzeko, ekintza boluntarioaren eta gizartean parte hartzeko beste modu batzuen bitartez.

Bizkaia **sozialki aktiboa eta balio solidario sendoak dituen lurraldea** izateagatik definitzen da, eta errealitate hori aitortzea, ikusaraztea eta saritzea merezi



ABENDUAK 2
BILBON

SARIA

Aktibazioa aitortzeko saria

Bizkaiko pertsonen eta, oro har, **lurraldearen bizitza hobetzeko bokazioagatik, lanagatik eta laguntzagatik** nabarmendu diren **pertsonen eta gizarte-eragileen** (enpresa, entitate, kolektibo, erakunde, ikastetxe/unibertsitate) **ekimena, konpromisoa eta ibilbidea jendaurrean aitortzea**, elkartasunaren eta gizarte-eraldaketaren ikuspegitik, tokikotik orokorrera, eta komunitate-esparru guztietatik (kultura, gizarte-ekintza, kirola, ingurumena, hezkuntza...).

#TiempoDeAccion
#BizkaiaGaraSariak2026




SARIAK ZIKLOA

Lurraldekotik tokikora

BizkaiaGara Sariak lurraldean zehar ibiliko dira, Bizkaiko udalerri/eskualdeetako ekimen, erakunde eta pertsonen arreta berezia eskainiz, eta tokiko komunitatearen lana eta konpromisoa herritarren aktibazioaren eta elkartasunaren ardatz gisa aitortuz.

Horrela, BizkaiaGara Sariak **lurraldeko dimentsioari eta tokiko dimentsioari balioa emango dien zikloa** osatuko dute, non GARA gure gizartearen hobekuntza ekarriko duen pieza izango den



KATEGORIAK

Sari 1 kategoria bakoitzeko + (aipamen berezi 1)

IBILBIDEA modalitatea, dedikazio eta konpromiso sozialeko ibilbideagatik eredu den pertsonarentzat.

PROIEKTUA modalitatea, bere izaera berritzaileagatik balio-ekarpenarekin nabarmentzen den ekimen/ekintzarako.

ENTITATEA modalitatea, konpromisoagatik, ekarpenagatik eta balio sozialagatik erreferentea den erakunde, kolektibo, enpresa, erakunde edo hezkuntza-eragilearentzat.

***AIPAMEN BEREZIA** modalitatea (edizio bakoitzean baloratuko)



HAUTAGAITZAK

Saria eskuratu ahal izango dute:

IBILBIDEA MODALITATEA

-**Pertsona fisikoak**, adinez nagusiak, edozein nazionalitatekoak, gutxienez 10 urtez irabazi-asmorik gabeko erakunde eta taldeetan boluntario gisa lagundu dutenak.

PROIEKTUA MODALITATEA

-Herriarren aktibaziotik eraldaketa eta hobekuntza soziala sustatzen duten **proiektu edo ekimen solidarioak**.

ENTITATEA MODALITATEA

-Interes sozialeko proiektuak bultzatzen dituzten **irabazi-asmorik gabeko Bizkaiko erakundeak eta gizarte-taldeak**.
-Erkidegoaren ekintza-ildoak bultzatzen dituzten baloreak eta lurraldea hobetzeko konpromisoa duten **enpresak**.
-Beren udalerrian herriarren aktibazioa eta parte-hartzea sustatzeko ekintzak inplementatzen dituzten **tokiko eta eskualdeko erakundeak**.
-Hezkuntza-komunitate osoan gizarte-partaidetza, aktibazioa eta boluntarioria sustatzeko ekimenak dituzten **ikastetxeak eta unibertsitateak**.

HAUTAKETA PROZESUA

1

Hautagaitzen proposamena

BizkaiaGara ekosistema,
elkarteak eta BizkaiaGara

2

Hautagaitzen aukeraketa

Batzorde Mistoak

BATZORDE MISTOA

SOCIAL EREMUA

ENPRESA EREMUA.

INSTITUZIONAL EREMUA

HEZKUNTZA EREMUA

KOMUNIKABIDE EREMUA

KULTURA EREMUA

ESKATUTAKO INPLIKAZIOA

- ✓ BizkaiaGara-n egindako hautagaitza-proposamenaren **irakurketa eta banakako balorazioa**.
- ✓ **Batzorde Mistoaren bileran parte hartzea** (aurrez aurrekoa edo online): hautagaitzak adostea.
- ✓ **Ekitaldian egotea**. Batzordeko pertsona guztiak gonbidatuta egongo dira ekitaldira.



EKITALDIA

Bizkaiak mugitzen duen energia, zeu zara.

Ekitaldiak ekintza komunitarioari balioa emango dio, non pertsonak norberaren gainetik dagoen zerbaiten parte sentitzen diren, eta non ongizate kolektiboa den aurrerapenaren benetako neurria.

Tokiko loturen garrantzia nabarmentzen du, komunitate sendo eta erresilienteak eraikitzen dituztelako, eta erakusten dutelako oparotasuna ez dela neurtzen aberastasun materialetan, baizik eta giza harremanetan, elkarlanean eta pertsonen artean sortzen den eragin positiboan. Halaber, azpimarratzekoa da tokikoaren eraginak lurralde mailan ere duen garrantzia.

Garenaz eta izan gaitezkeenaz jabetzea.



BizkaiaGara

Bizkaiko Foru Aldundia, BBK eta EDE Fundazioak sustatutako proiektua.

BizkaiaGara-ren helburua da **gizarte-eremu guztietatik** (ingurumena, kultura, gizartea, kirola...) **eta eragile guztiek** (erakundeak, taldeak, enpresak, pertsonak, ikastetxeak eta unibertsitateak) **bultzatutako proiektuak aktibatzea, laguntzea eta konektatzea**, gure **lurraldea herritarren parte-hartze aktiboaren bidez hobetzen lagundu** nahi dutenak, hain zuzen ere.



BizkaiaGara
SARIAK2026

Eginez izan · Tiempo de acción

 **Bizkaia**
Foru Aldundia

 **EDE**
FUNDAZIOA

 **bbk**

HARREMANETARAKO



komunikazioa@bizkaiaagara.eus



www.bizkaiaagara.eus



94 416 15 11



BizkaiaGara
SARIK2026

Eginez izan · Tiempo de acción

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

 **EDE**
FUNDAZIOA

bbk 